



# EUSKARALDIA

Argazkia: Aritz Loiola | FOKU

**EUSKARAREN  
ALDE EGOTETIK  
EUSKARAREN  
ALDE** *aritzera.*



**Azpeitia**  
Denontzat

# Euskaraldia ulertu, ikusi eta bizitzeko modu berri bat

Dena prest dago hizkuntza ohituretan eragiteko helburuarekin sortutako ariketa sozial erraldoiaren laugarren edizioa hasteko. «Elkar mugituz egingo dugu» leloarekin, Euskaraldia ulertu, ikusi eta bizitzeko modua aldatzeko erronkarekin dator 2025eko maiatzaren 15etik 25era izango den edizio berria.

## ERREPORTAJEA

Joseba SALBADOR GOIKOETXEA | DONOSTIA

**H**izkuntza-ohitura aldatzeko ariketa sozial gisa duen eraginkortasuna aski frogatuta geratu da edizioz edizio egin izan diren ikerketetan. Hala ere, Euskaraldia ez da kanpaina huts bat, ariketa sozial bat baizik, euskararen erabilera biderkatzeko ahaleginean ezinbestekoa, baina ez nahikoa. Horregatik, Euskaraldia ulertu, ikusi eta bizitze-

ko modua aldatzea proposatu dute antolatzaileek: “reset” egitea, berrabiaraztea. Izan ere, azken edizioaren ondoren, gizarteko hamarnaka eragile eta herritarrekin batera egindako hausnarketa prozesuaren ondorioetako bat da Euskaraldiak berrikuntza behar duela, herritarrengan berriro ilusioa masiboki piztuko badu.

Hausnarketa horietatik etorri da, hain zuzen, Euskaraldia udaberrira aldatzeko erabakia, izan ere, urte sasoi horretan kaleetan jende gehiago ibili ohi da eta bizita-

Euskaraldian parte hartzen duten erakundeek aurkezpen agerraldia.  
Jaizki FONTANEDA | FOKU



sun sozial handiagoa izaten da kalean. «Euskaraldia ariketa soziala den heinean, jendearen arteko interakzioa beharrezkoa da, eta eguraldiak eta aldarteak laguntzen du horretan», azaldu zuen Goiatz Urkijok, Euskaraldiko koordinatzaileak, edizio berriaren aurkezpen ekitaldian.

Garai aldaketak txaparen erabilera eta ikusgarritasunean eragitea lortu nahi dute antolatzaileek. Txapa ezinbesteko osagaia da ariketan, ahalbidetzen du ariketa bera, euskaraz hitz egiteko edo entzuteko jarrera erakusten baitu; hori ezinbestekoa da ariketa modu erosoagoan egite-

25€

**GUTXIENeko ESKAERA JAITSI DUGU**

MAIATZEAN GUTXIENeko ESKAERA EROSKETAN 25 EUROTARA JAITSI DUGU. *DOAKO BIDALKETA.*

**Km0 baserria**

**ONLINE DENDA**

PINTUREN, ERREMINTEN ETA PINTURA-MAKINERIAREN SALMENTA

**MARGOGAI**

VENTA DE PINTURAS, HERRAMIENTAS Y MAQUINARIA DE PINTURA

lazkaibar kalea 1. BEASAIN · t 943 882 293 · www.margogai.com

**EUSKARALDIA**

Elkar mugituz egingo dugu

**ULMA**

**Triku Harri**

taberna & jatetxea

Tel.: 943-246973

Matia Kalea 35, Antigua, Donostia

www.trikuharrijatetxea.com



## UNA EDICIÓN NOVEDOSA PERO QUE MANTIENE SU ESENCIA

Ya está aquí la cuarta edición de Euskaraldia, un ejercicio social gigantesco que se organiza con el objetivo de impulsar un cambio en las costumbres lingüísticas y que este año, por primera vez, se celebrará en primavera, del 15 al 25 de mayo.

Pese a este cambio de fecha, Euskaraldia mantiene su esencia, que no es otra que promover la participación activa de aquellas personas que saben euskera pero no lo usan habitualmente, animándolas a hablarlo en más contextos. Y al mismo tiempo, fomentar que quienes entienden euskera, pero no se sienten seguros para hablarlo, reciban comunicación en euskera para fortalecer su exposición al idioma.

Todo ello se articula a través de dos figuras clave: “Ahobizi”, personas que se comprometen a hablar en euskera siempre que sea posible, y “Belarriprest”, personas que, aunque puedan responder en castellano, expresan su voluntad de que se les hable en euskera.

Los organizadores destacan la importancia que tiene la utilización de la chapa, ya que es el elemento que posibilita la propia iniciativa, mostrando el rol lingüístico que adquiere cada participante, esto es, cuándo y con quién hablaremos en euskera. Y, sobre todo, se difunde un mensaje claro a las personas del entorno: «Conmigo habla euskera con toda tranquilidad».

El lema elegido este año es “Elkar mugituz egingo dugu” (Lo haremos moviéndonos entre todos), una frase que hace referencia a la activación, al movimiento, a las emociones y a la influencia que tenemos unos sobre otros.

En palabras de la coordinadora de Euskaraldia, Goiatz Urkijo, «hablando euskera, uno mueve al otro, y el otro a uno, transformando las inercias lingüísticas. Utilizando el euskera desde la primera palabra, o utilizándolo siempre que se pueda, hacemos mover a los contertulios y a la propia sociedad. Cada interacción incrementa la utilización del euskera y, si lo hacen miles y miles de personas de forma simultánea, se logra un efecto multiplicador». **J.S.**

ko. «Eta txapa soinean eraman eta ikusgarri egitea errazagoa izango da, ziurrenik, udaberrian», esan zuen Urkijok.

Hamaika egunez luzatzeak ere badu bere arrazoia. «Uste dugu hamaika egun izateak ariketa modu eraginkorragoan egitea ahalbidetuko duela, sakonago egiteko aukera emango du. Bi asteburu hartuko ditu, eta horrek herrietan mugimendua sortzeko aukera emango du».

Norabide horretan lanean hasiak dira dagoeneko Euskal Herriko hainbat txokotako herri batzordeak, eta horretarako tresna berri bat eskura dute: Euskara aktibatzaileen gidaliburua. Euskaraldiak ondutako gida praktikoa honek mugimendua sortzeko, osatzeko, sarea irudikatzeko eta ekin-tzak antolatzeak gakoak ematen ditu; herritarren aktiba-

ziorako modu berriak proposatzen ditu.

### EFEKTU BIDERKATZAILEA

Laugarren edizioaren leloak berak (“Elkar mugituz egingo dugu”) aktibazioari, mugimenduari, emozioei eta bata bestearengan dugun eraginari erreferentzia egiten die. «Euskaraz hitz eginez, bata bestea mugitu egiten du, eta besteak bata, hizkuntza inertziak eraldatuz», nabarmendu zuen Urkijok. Euskaraldiko koordinatzailearen hitzetan, lehen hitzetik euskaraz eginda, edo ahal den guztietan euskara erabilita, mugitu egiten ditugu solaskideak, eta jendartea bera. «Interakzio bakoitzak euskararen erabilera handitzen du, eta milaka eta milaka pertsonak batera eginda, efektu biderkatzailea lortzen da», adierazi zuen.

Baina jarrerak bakarrik ez, emozioak ere mugitzen ditu Euskaraldiak, sakontasun emozional kolektiboa du.

**JARRERAK BAKARRIK EZ, EMOZIOAK ERE MUGITZEN DITU EUSKARALDIK, SAKONTASUN EMOZIONAL KOLEKTIBOA DU.**

«Milaka eta milaka herritarrek, aldi berean, Senperen, Lizarran eta Bilbon, euskararen aldeko urratsa egiten dute, euren nahiak, erronkak eta aldarririak batuz. Hunkigarria da, ilusioa pizten du, eta badu epikatik ere, mundu osoan ez baita egin halako ariketa sozial masiborik», aipatu zuen Urkijok.

Euskaraldia festa bat ez den arren, ariketa gozamenetik ere egin daitekeela azpimarratu dute antolatzaileek, euskaraz bizitzeko gogoz ari den komunitate bat garela sentituz eta ospatuz. «Emozioek eta umore onak eramangarriagoa egingo dute estres linguistikoa».

### HERRI BATZORDEAK

Ariketa erraldoia aldi berean hainbeste herritan arrakastaz gauzatzeko, ezinbestekoa izan da tokian tokiko batzordeek herriz herri egiten duten lana. «Haiek ahalbidetzen dute Euskaraldiaren mezua herritarrengana iristea eta ariketa

bera, herriz herri, Euskal Herri osoan egin ahal izatea», adierazi zuen Jon Kobeaga Euskaraldiko koordinazio orokorreko kidea, maiatz hasieran Lekeition egindako aurkezpenean.

Aurten, gainera, batzordeak oso «indartsu» sumatu dituztela nabarmendu du Kobeagak: «Orain bi edizio bizi izan genuen pandemia, eta 2022ko Euskaraldian sumatu zen haren arrastoa oraindik. Aurten, orde, batzordeetan jende gehiago ibili dela jakin badakigu, hainbat herritatik jaso dugun mezua izan baita hori».

Kobeagarekin batera egon zen Joseba Palenzuela Mutrikuko batzordeko kidea, eta Euskaraldiak herrian sortzen duen mugimendua nabarmendu zuen bere hitzartzean: «Herri mailan mugimendua polita dago Euskaraldiaren bueltan. Aurreko edizioan bost bat lagun izatetik, oraingoan 10-12 izatera pasatu gara, eta ilusioz gabilta».





**JON KOBEAGA** Euskaraldiaren koordinazio orokorreko kidea

Euskararen erabilera sustatzeko antolatu den ekimen masiboak urte osoko prestaketa lan itzela ekarri du aurretik. Jon Kobeaga, koordinazio orokorreko kidea, ahaleginak merezi duela uste du, sinetsita baitago Euskaraldiak egiten duen ekarpena oso positiboa dela. Bere iritziz, «lehen hitza beti euskaraz eginda sorpresa politak hartuko ditugu».

# «Zenbat dakizun baino, erabileraren aurrean zein portaera duzun da gakoa»

**Nagore BELASTEGI** | DONOSTIA

Hizkuntza ohiturak aldatzea oso zaila dela onartzen du Jon Kobeagak, «are gehiago jende ezagunarekin bada, edo eguneroko elkarriketarako hizkuntza aldatu nahi badugu». Hala ere, aurreko hiru edizioetako ikerketek Euskaraldia amaitutakoan euskararen erabilera hasieran baino altuagoa izan dela baieztatu dute.

## Zergatik da beharrezkoa horrelako ekimen bat antolatzeko jarraitzea?

Ikerketa soziolinguistiko guztiek nabarmentzen dute erabileran eragiteko beharra dagoe-la, erabileraren arora jauzi egiteko momentua dela. Orain bertan Euskaraldia da euskararen erabileran eragiteko ekimen masibo bakarra, eta gainera eraginkorra dela frogatu dute aurreko hiru edizioetan egindako ikerketek. Parte har-

tzen dutenek euren hizkuntza ohiturak aldatzen dituzte, eta kontzientzia eta hausnarketa bultzatzen ditu.

Euskaraldiaren hirugarren edizioaren ikerketak baieztatu zuen parte hartzaileen bi herenek hizkuntza ohiturak aldatu zituztela ariketa bitartean. Beraz, aldaketak horiek gertatu egiten dira eta, gainera, badakigu Euskaraldiagatik hasitako aldaketek iraun egin dutela gerora ere, eta hori oso pozgarria da.

Euskaraldiak ez du euskararen arazoa konponduko, eta agian nahi baino astiroago handitzen da erabilera, baina Euskaraldiari esker gertatzen diren hizkuntza ohituren aldaketak euskararen erabileran ekarpen positiboa egiten dutela sinesten dugu.

Entitateetan ere ariketa oso baliagarria zaiela dakigu; hala adierazten digute. Entitate askotan bilerak euskaraz egiten



ARITZ LOIOLA | FOKU

hasi dira, entitateko kideen arteko euskarazko harremanak ugartu dira...

## Euskal Herri osoko egoera soziolinguistiko desberdinetarako baliagarria dela uste duzue? Nolako erantzuna jaso duzue herrien aldetik?

Ariketaren oinarria oso baliagarria da Euskal Herri osorako. Izan arnasgune edo erdara gehiago erabiltzen den gunea, leku guztietan eta ia denek dute oraindik euskaraz gehiago aritzeko pausoak emateko tartea. Hala ere, abiapuntua oso ezberdina da leku batzuetan eta besteetan, eta hori, noski, kontuan hartu behar da ariketa antolatu eta egiteko unean. Horregatik, hasieratik aipatu dugu Euskaraldia moldagarria dela, mila modutara antolatu eta egin daitekeela, eta batzorde bakoitzak ekarri behar duela bere errealitatera. Nola? Helburuak eta eragin eremuak doituz, adibidez. Zer eta non lortu nahi duten erabakita, eta horren arabera, lanketa egokitu-ta. Koordinazio orokorretik proposamenak eta horretarako baliabideak ematen dizkiegu, ariketaren oinarria ere partekatzen dugu. Hortik aurrera, herri bakoitzak daki non dagoen eragiteko beharra: batzuk belarriprestetan eragingo dute gehiago, beste batzuen mezua gehiago izango da aho-biziei zuzendutakoa, gazteak, helduak, entitateak... eragiteko mila modu eta bide daude. Eta moldagarritasun hori herriek asko eskertzen dute, horrela ariketa lekuan-lekuan eragin-korra goa bihurtzen delako.

## Lehen Euskaraldian ilusioa nabaritu zen, baina beldurrak ere bai, batez ere belarripresten aldetik, «gai izango ote naiz?». Mantentzen al da ilusio eta beldur sentsazio hori?

Lehen Euskaraldia oso berezia izan zen, zentzu horretan ere bai. Jendeak ez zekien zer zen zehazki, zer eskatzen zitzaien... Ordura arte erabileran baino ezagutzen jartzen zen fokua eta hori aldatzera etorri

**ITURRIETA SAGARDOTEGIA**  
Reservas en: [www.iturrieta.eus](http://www.iturrieta.eus)

Bº Arraga, 2 / Aramaio  
t. 685 72 15 93  
[info@iturrieta.eus](mailto:info@iturrieta.eus) • [www.iturrieta.eus](http://www.iturrieta.eus)

ENEK

**TREBIÑU**  
sagardotegia

Askartza (Trebín)  
[www.trebinu.com](http://www.trebinu.com)  
945 24 48 52 - 657 73 65 99

**Kuartango**  
SAGARDOTEGIA

Zuhatsu-Kuartango 21  
t. 699 747 730 • 945 362 683

**TXOTX EGIN!!**

**Arabako sagardotegiak**

Servicio de autobús

zen Euskaraldia. Zenbat daki-  
zun baino, erabileraren au-  
rrean zein portaera duzun da  
gakoa. Horrek belarriprestei  
beldurra baino askatasuna  
eman die urte hauetan guztie-  
tan. Azken batean, nola hitz  
egiten duzun baino ahal du-  
zun guztietan euskara erabil-  
tzean jartzen da azpimarra.  
Sentsazio hori mantentzen de-  
la esango nuke, eta hala adie-  
razi izan digute belarriprest  
askok; beraientzat lasai aritze-  
ko tartea bilakatzen da Euska-  
raldia; baita beraiekin euska-  
raz aritzeko eskaera egiteko  
tartea ere.

**Zer aldatu da urte hauetan?  
Zein bilakaera izan du arike-  
tak?**

Jendeak badaki erabileran era-  
gin behar dela, eta horretarako  
guk hizkuntza ohiturak alda-  
tzea proposatzen dugu, euska-  
raz gehiago aritzeko. Belarri-  
prest edo ahobiziren artean  
hautatu beharrak hausnarketa  
egitea dakar: «Nola jokatu-  
ko dut Euskaraldiak irauten duen  
bitartean?». Rolak gizarteratu  
dira eta jendeak oro har bada-  
ki zein rol hartu edo nola joku-  
tu behar duen erabileran jauzi  
hori eman dezagun. Kontzien-  
tzia linguistikoa pizten du, az-  
ken batean.

Lehen hitza euskaraz egi-  
tearen garrantzia ulertu dute  
herriarrek, eta modu natura-  
lean praktikatzen hasi dira as-  
ko eta asko; gainera, elkarriz-  
keta elebidunak posible direla  
ere gizarteratu du Euskaral-

diak. Horrez gain, bestelako  
zeharkako onurak ere ekarri  
ditu ariketak: euskara agenda  
eta iritzi publikoaren lehen le-  
rroan jartzen du.

**EAEn ikastetxe gehienetan D  
edo B ereduak eskaintzen dira,  
eta horrek haur ia guztiek  
euskara ikastea bermatzen  
du, baina nola lortu erabilera  
handitzea? Ezagutza eta erabi-  
lera berdintzeko zein pauso  
eman beharko lirake?**

Euskaraldiak helduen hizkun-  
tza ohiturak aldatzeko propo-  
samena egiten du. Ariketa 16  
urtetik gorakoentzat da batez  
ere, eredugarriak izan daite-  
zen. Badakigu helduei begira-  
tuta hautatzen dituztela asko-  
tan euren jokaerak haur eta  
gazteek ere.

Aurten, hala ere, ‘xaxatzai-  
le’ figura gizarteratu dugu;  
helduek Euskaraldian parte  
har dezaten sustatzea izango  
da figura horren zeregina. 16  
urtetik beherako haur eta ne-  
rabeen egitekoa izango da ho-  
ri, etxean Euskaraldia zer den  
azaltzea eta inguruko helduak  
parte hartzera animatzea.

Hala ere, lehen aipatu beza-  
la, helduek izan behar dute  
gazteen eredu; helduek euska-  
raz jakinda ere egiten ez badu-  
te, nekez egingo dute haurrek  
eta nerabeek.

**Hamaika egun hauetan egin-  
dako saiakerak gero urte  
osoan zehar mantentzen di-  
ra? Nahikoa da ohitura be-  
rriak hartzeko?**

**«IZAN  
ARNASGUNE EDO  
ERDARA GEHIAGO  
ERABILTZEN DEN  
GUNE, LEKU  
GUZTIETAN ETA IA  
DENEK DUTE  
ORAINDIK  
EUSKARAZ  
GEHIAGO  
ARITZEKO  
PAUSOAK  
EMATEKO  
TARTEA».**

Ohiturak aldatzea oso zaila da  
orokorrean, eta hizkuntza ohi-  
turak aldatzea ere bai. Are  
gehiago, jende ezagunarekin  
bada edo eguneroko elkarriz-  
ketetako hizkuntza aldatu  
nahi badugu. Astiro etortzen  
dira horrelako aldaketak, bai-  
na posible dela ikusi dugu, bi-  
zipen asko jaso ditugu tankera  
horretakoak. Aurreko hiru edi-  
zioetako ikerketek Euskaraldia  
amaitutakoan euskararen era-  
bilera hasieran baino altuagoa  
dela ere baieztatzen dute; hau  
da, hamaika egunetan aldatu-  
tako ohitura batzuk mantene-  
tzen direla.

Hamaika egun iraupen ego-  
kia dela baieztatu digute bat-  
zorde gehienek; luzeagoa iza-  
teak gehiegizko nekea  
ekarriko luke, hizkuntza ohi-  
tura horiei eustea zailagoa den  
errealitate soziolinguistikoe-  
tan batik bat.

**Zeintzuk dira Euskaraldiaren  
erronkak? Zein publikorenga-  
na heltzea falta zaio?**

Euskaraldiak oraindik poten-  
tzialitate handia dauka, euska-  
ratik urrunago egon baina hiz-  
kuntza ulertzen dutenengana  
heltzea, esaterako. Horiengana  
ere heldu beharko genuke  
apurka-apurka, jakinarazi zer-  
gatik egiten dugun hau guztia;  
ziur nago askok eta askok bat  
egingo luketela ariketarekin.  
Nafarroan asko lantzen ari di-  
ra aldeketasunaren gaia, eus-  
karara gehiago hurbiltzeko.

Belarriprestak prestigiatu  
beharra ere askotan aipatu

dugu; oso garrantzitsuak dira  
euskara egunerokotasunean  
erabili nahi duenak eroso  
erabili ahal izateko. Beldu-  
rrak eta lotsak alde batera  
utzita gure hizkuntza askoz  
gehiago erabili eta entzutea  
lortuko genuke, eta animatu  
behar ditugu zalantzati dau-  
den guztiak.

Eta beti dago pedagogia  
egiteko tartea, oso garrantzi-  
tsua da jendeak bere hizkun-  
tza ohituren inguruan haus-  
nartzea eta euskaraz aritzeko  
ahalduntzea.

**Euskaraldia gaur bertan hasi  
da. Zer egin behar dute herri-  
tarrek? Zein aholku emango  
zenukete ariketa modu era-  
ginkorrean egiteko?**

Euskaraldiaren helburua eus-  
karaz gehiago aritzea da, ho-  
rretarako, zenbaitetan, hiz-  
kuntza ohiturak aldatu  
beharra ekarriko du. Lehen hi-  
tza beti euskaraz eginda sor-  
presa politak hartuko ditugu,  
uste ez genuenak euskaraz  
erantzungo digulako, esatera-  
ko. Eta euskara ulertu baina  
hitz egiten ez duen horrekin  
euskaraz jarraitzen badugu  
ere euskaraz aritzeko aukerak  
biderkatuko zaizkigu.

Hamaika egun hauetan ba-  
koitzak pausotxo txiki edo  
handi bat ematen badu milaka  
lagunen urrats horiekin olatu  
handi bat sortuko dugu. Eta  
jantzi txapa, aurrean duzunari  
euskaraz ulertzen duzula adie-  
razteko. Izan ere, elkar mugi-  
tuz egingo dugu!

**ZAINDDU  
DAIGUN  
EUSKERIE!**

*Elkar mugituz  
egingo dugu*

 **ARRASATEKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



2025EKO  
MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

**EUSKARALDIA**

*Elkar mugituz  
egingo dugu*

 **EMAN IZENAI!**  
www.euskaraldia.eus



**ELKAR  
MUGITUZ  
EGINGO  
DUGU**



 **ANDOAINGO  
UDALA**

 **ANDOAINBIZI  
TZEKO**

 **andoaINDARRA  
euskaraz**

# Lantoki, erakunde eta elkarteek ere badute zeresana eta zeregina

**Euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan jardun eta entzuteko ariketa da Euskaraldia. Baina herritarrei egiten zaien gonbiteaz gain, lantoki, erakunde eta elkarteek ere badute ariketa horretan zeresana eta zeregina.**

J.S. | DONOSTIA

Euskaraldia entitateetan nola zabaltu eta landu daitekeen argitzeko agerraldia egin zuten otsailean Euskaraldiko arduradunek. Goiatz Urkijo koordinatzailearen esanetan, «jakitun gara oso garrantzitsua dela Euskaraldiak entitateetan duen eraginaz. Eta ez entitateetan bakarrik, bertako kide askorentzat ere entitatea da euskaraz hitz egiteko duten eremu bakarra».

Entitateak aipatzen direnean askotariko eremuak barnebiltzen ditu, izan ere, lantokiak badira entitate, baina baita kirol edo kultur elkarteak, eta denda edo tabernak ere. Eremu horietako ordezkariak izango dute nolako ariketa egin nahi duten hautatzeko aukera. Izan ere, aurtun, oinarritzko egitekoak aurrera eramateaz gain, euskararen erabileran bestelako urratsak emateko aukera ere izango dute.

Honakoak izango dira entitate batek Euskaraldian parte



Euskaraldia entitateetan nola zabaltu eta landu argitzeko Donostian eginiko agerraldia. Gorka RUBIO | FOKU

hartzeko aurrera eraman beharreko oinarritzko egitekoak: kideak Euskaraldian inguruan informatu, prestatu eta ariketa ikusgarri egin. «Oinarritzko egiteko horiek izango dituzte izena ematen duten entitate guztiek», azaldu du Goiatz Urkijok.

Eta, gainera, lanketa sakanagoa egiteko aukera ere emango zaie izena ematen duten entitate guztiei. Bestelako urratsak ematea hautatzen dutenei «euskararen erabilera sustatzeko aurrerapausoak ematea proposatuko diegu, hala nola, ariguneak sortzea, bilerak euskaraz egiteko neurriak hartzea, mintzatratuak adostea...».

## Askotariko entitateak

Otsailean San Telmo museoan egindako agerraldian, Euskaraldian izena eman duten hiru entitatetako ordezkariak izan ziren: Irsearaba, Luma Baiona eta Osasuna. Bakoitzak bere eremuan pausoak eman nahi dituztelako euskara gehiago eta modu erosoagoan erabili ahal izateko.

Irsearaba gizarte ekimenerako kooperatiba da, gizarte eskuhartzearen alorrean egiten du lan. 2023an Euskara lantaldeak bultzatuta, plangintza global baten aldeko apustua egin zuten, erabilera bultzatzeko xedearekin. Idoia Martinez de Lahidalga eta Sergio Jimenez entitateko ordezkariak esanetan, orain Euskaraldiarekin lortu nahi dute «euskararen erabilera areagotzea bai langileen artean baita lan egiten dugun pertsonekin ere, eta Euskaraldian hartutako jarrera epe luze mantendu nahi genuke. Lotsak alde batera utzi eta euskara aktibatzeke».

**EUSKARALDIA**  
Elkar mugituz egingo dugu

Maria Muñoz kalea 8, BILBO.

**LA MUGA**  
lamuga.eus

WWW.TECOPLAS.COM

**GALDARAGINTZA PLASTIKOA**  
PROIEKTU INTEGRALAK



INGENIARITZA ETA  
INSTALAZIEN DISEINUA



EKIPAMENDUEN  
FABRIKAZIOA



INSTALAZIEN MUNTAKETA  
ETA MARTXAN JARTZEA



MANTENTZEA

Diseinu, fabrikazio eta ekipamenduen muntaia eta korrosioaren aurkako instalazioak plastikozko materialetan

**Bar MENDI**  
Pintxo berezietan sorta zabala.

Zaballa, 6. BARAKALDO. t 94 437 11 71

Haien kasuan, egun, "Egunon" eta "Mintzatratu" dinamikan entitateko hiru zerbitzutan egiten dute, eta Euskaraldiko egunetan ariketa erakunde osora zabaltzeko asmoa dutela aurreratu dute.

Aurreko ediziotan Euskaraldian parte hartu ez bazuten ere, oraingo honetan «gogotsu» ekingo diote ariketari, izan ere, «euskara normalizatzeko dinamika bat da eta bidea oinez egiten denez, pauso hori emateko egitasmo ezin-hobea dela pentsatzen dugu», adierazi zuten kooperatibako kideek, eta gainerako entitateak Euskaraldira batzeko animatu zituzten.

Luma Baiona euskarazko murgiltze eredu haurtzaindegia da, eta Patxi Amulet elkarteak kideak ere beren esperientzia partekatu zuen agerraldian. 2008 urtean sortu zen Luma Baiona «ez baitzen baionar ttipiendako tokirik aski haurtzaindegietan. Gainera, ez zen ttipientzako euskarazko eskaintzarik: ez elebidun, ez murgiltzaile ereduetan», azaldu zuen Amuletek.

Baionako entitateak Euskaraldian izena ematea erabaki du «euskararen sustapena eta transmisioa Luma Baiona Haurtzaindegia proiektuaren bihotzean direlako». Euskarazko murgiltze egitura gisa, haien «engaiamendua» indartu nahi dute hizkuntza-eguneroko erabilpenaren alde, bai haurrekin, bai familiarekin. Amuletek gaineratu zuenez, «Euskaraldiaren garaian euskaldunak ez diren familien inplikazioa indartzen

**«JAKITUN GARA OSO GARRANTZITSUA DELA EUSKARALDIAK ENTITATEETAN DUEN ERAGINAZ. ETA EZ ENTITATEETAN BAKARRIK, BERTAKO KIDE ASKORENTZAT ERE ENTITATEA DA EUSKARAZ HITZ EGITEKO DUTEN EREMU BAKARRA».**

**«EUSKARALDIAN HARTUTAKO JARRERA EPE LUZERA MANTENDU NAHI GENUKE. LOTSAK ALDE BATERA UTZI ETA EUSKARA AKTIBATZEKO».**

saiatuko gara, dela etxean euskara gehiago erabiltzea bultzatzen, dela familiekin euskarazko elkartruke-momentuak sortzen».

«Keinu txiki bakoitzak balio du», azpimarratu zuen Luma Baionako ordezkariak. Izan ere, Euskaraldia ingurune euskaldunago baterantz urrats bat gehiagoren egiteko denboraldia da, eta beste batzuei eredu ematea.

**Osasuna, bidea pauso txikiz**  
Osasuna kirol taldeak ere parte hartuko du aurtengo Euskaraldian. Mikel Erbiti Osasuna klubeko kideak azaldu zuenez, «guk beti esan izan dugu osasunak euskaraz zuela izena baina izana erdalduna izan duela urte askotan». Egoera hori aldatu egin zen 2017an bazkideek hala eskatuta urte horretan egin zuten batzar nagusian. «Hizkuntza eta aholkularitza batzordea sortu genuen orduan eta bidea hasi», azaldu zuen Erbitik.

Euskaraldiarekin helburu bi dituztela aipatu zuen: barne mailan ariguneak sortzea, euskaldunon artean talde lanak euskaraz egin ahal izatea eta klub barruan euskararen normalizazioa bultzatzea. Kanpora begira, berriz, «helburua da zaleek sentitzea, euskara haiena den bezala, Osasunarekin duten harremana euskaraz ere egin dezaketela», gaineratu zuen Erbitik.

Euskaraldiak «aukera polita eskaintzen du», bidea pauso txikiz bada ere egiten hasteko, «gerora pauso gehiago eta handiagoak etortzeko».

## LANKETA SAKONAGOA EGITEKO AUKERA

Izena ematen duten entitateek egiteko hauek izango dituzte Euskaraldian:

- **Informatu:** Belarriprest eta ahobizi rolen inguruko informazioa entitateko kideen artean zabaltzeko, eta izena ematera animatu, horretarako erraztasunak jarrita.
  - **Prestatu:** Entitateek kideei euskararen erabilera sustatzeko prestakuntza eskaintzea aztertuko dute, horretarako baliabideak izango dituzte webgunean.
  - **Euskaraldia ikusgarri egin:** Izena ematen duen entitateak ariketa badatorrela ikusgarri egingo du: espazioak apainduz, ekintzak antolatuz, barne zein kanpo komunikazioan hartutako neurriak edo egingo diren ekintzak jakinaraziz...
- Eta aurreko egiteko horiez gain bestelako pausoak eman nahi dituzten entitateek, lanketa sakonagoa egiteko aukera baliatu

dezakete izena eman ostean. Hori aukeratuta, koordinazio orokorretik baliabideak eskainiko zaizkie aparteko lanketak egiteko, besteak beste:

- **Ariguneak sortu:** euskaraz lasai aritzeko guneak.
  - **Komunikazioak euskaraz egin:** bilerak, mezuak eta bestelako komunikazioak euskaraz zabaltzeko.
  - **Mintzodromoak antolatu;** entitate barruan lasai euskaraz hitz egin ahal izateko.
  - **Mintzatratuak adostu** entitateko kideen artean.
  - **Hiztegi kutxa;** entitatearen arloko euskarazko hiztegia ezagutu eta erabiltzeko.
- Azken lanketa hauek egiteko, intraneteko sarbidea eta aholkularitza izango dituzte eskura entitateek. **J.S.**



Juan Bautista Zabala 9. 48991 Algorta · 94 460 70 84

# H hizki bereizgarria: erregistro informala erabiltzeko deia

Norberak bere herriko euskara erabiltzean iruditzen zaigu nahiko erregistro informala erabiltzen ari garela, baina errealitatea da zuka, berdin du zein euskalkitan, hizkuntza formala dela. Ohitu gara edozein unetan erabiltzera, baina erregistro informala ere badugula gogoratzea ez dago soberan.

## ERREPORTAJEA

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

**E**uskaraldiaren lehen edizioa ospatu zenean, 2018an, ikasi genituen Ahobizi eta Belarriprest kontzeptuak, eta ordutik aldiro jantzi ditugu gure papera identifikatzen dituzten txapak. Baina aurtengo laugarren edizioa berrikuntza batekin dator, eta gure inplikazioa zertxobait moldatzen duen bereizgarri bat sortu dute; H hizkia gehitu ahal izango diogu gure txapari, gurekin zukaz beharrean hikaz hitz egitea nahi badugu.

Lagun arteko hizkera dugu hitanoa, kolokiala, baina gutxitan erabiltzen dena. Zuka erregistro formalagoa izanda ere, konfidantza handiko zirkuluetan normaltasunez erabiltzen da, hika desagerpena kondentatuz. Baina hitanoa euskararen ezaugarri eder bat bezala hartzen badugu, hori ere bultzatzea garrantzitsu ikusten dute Euskaraldiko antolatzaileek, eta horregatik jarri dute horretan esfortzua aurtan.

Hitanoa erabiltzen duten lurralde guztietako herritar talde batek ZirHika taldea



ZirHika taldeko kideak Euskal Herri osoko ordezkariak dira, hitanoa sustatzeko ekimenak antolatzen dituztenak. AHOTSAK

osatu zuen 2019an, hitz egiteko era hori bultzatzeko asmoz. «Hitanoa tresna paregabea da kalean eta lagunartean erabiltzeko, hizkuntzari freskotasuna eta adierazkortasuna ematen dion hizkera informala delako –gogorazi

zuten ekimen honen aurkezpenean–. Nahiz eta ikaste-teeetan euskaraz ikasi, gazte askok kalean erdarara jotzen du bat batekotasun, adierazkortasun eta informaltasun bila: gazte-hizkera baten bila. Euskarak berezkoa duen hiz-



**Barrundiako Udala**  
www.barrundia.eus

Loreak - Landareak | Lurrak - Loreontziak




**etxelore**  
Lorategia

MEÑAKA. Bizkaia · www.etxelore.net



**sulabe**  
Ogirik beroena

Irrigoenea Okindegia. Hernani  
Tel. 943 331 725  
Peña Okindegia. Hernani  
Tel. 943 552 398  
Sulabe kafetegia. Beraun  
Tel. 943 529 237  
Sulabe. Hernani  
Tel. 943 554 954

Eraman zure mahaira Sulabe ogia

www.sulabe.com

**ENBATA**



KALE NAGUSIA, 14. DONOSTIA / 943 424 797 - 609 314 962  
enbatadenda@gmail.com · www.enbata.eus

kera informala, berriz, gain-behera joan da azken hamar-kadetana».

Hitanoa ez da herri guztietan maila berdinean erabiltzen. Herri oso euskaldunetan mantendu da batez ere, baina hala ere pixkanaka galtzen doa. Asmoa, euskaldunen artean orokorrean eta gazteen artean bereziki hitanoaren erabilera areagotzea da, hizkuntza-ohiturak aldatu eta hiztunak aktibatzea.

**SUSPERTZEKO TRESNAK**  
Orain arte Hikaldia ospatu izan da herri batzuetan, baina orain ekimena Euskaraldi osora zabaltzea nahi dute, ZirHika taldea Tauparekin elkarlanean. Hala, H hizkia txapari gehitzen dionak esan nahiko du berarekin hikaz egin dezakegula, berdin du Ahobizi edo Belarriprest izan. Are gehiago, H-a eramateko ez da zertan hitanoa jakin behar, ikasi edo entzun nahi duenak ere gehitu baitezake.

Honela, hitano hiztunak aktibatu eta sortu nahi dituzte, galtzen ari den hori berreskuratzeke. Parte hartu nahi duten herritarrei, txaparekin batera H-dun gometxak ere banatuko zaizkie. 84 herrik eman dute izena Euskaraldia Hikan.

«Zirhika elkartea jarri zen Euskaraldiko lantaldearekin harremanetan, hainbat herri-tan aurretik ere egin zen Euskaraldiaren bueltan Hikaren sustapena, eta elkartekoek ho-

# NOKA TRESNA FEMINISTA BEZALA

Hitanoaren galera nabarmena izan da urtetik urtera, baina batez ere nokarena. Hika hitz egiten den herrietan toka entzutea arrunta bada ere, noka entzutea zaila da edonon. Gizonen artean erabiliagoa da hitanoa, beraz, emakumeen artean baino. Ezaugarri horri begiratuz gero, hitanoari bultzada ematea ez da pentsatu dezakeguna bezain erraza, ahots kritikoak ere badituelako. Izan ere, euskararen bereizgarrietako bat da ez duela genero markarik, pertsona askorentzat abantaila dena. Hori dela eta, hitanoari uko egiten diotenak badaude, toka eta noka bereiztean beste hizkuntza gehienetan dauden genero markak erabiltzen direlako. Hala ere, mutilen eta nesken artean dagoen hikaren erabilera

maila desberdintasunak motibatuta, feminista gazteek noka berreskuratzea eta euren egitea tematu dira.

Orain arte hitanoa –gutxi erabiltzen den arren– gizonen hizkuntza izan bada, emakumeak ez dute konformatu nahi, eta euren erregistro informala aldarrikatzen hasi dira. Genero markaren eztabaida alde batera utzita, hizkuntza eta komunikazio eskubidea lehenetsi da, emakumearen ahalduzaren aldeko apustua eginez.

Noka ikasi eta kalean emakumeen artean erabiltzeko hautua egin duten asko daude, hitanoa ikastetxean ikasten ez den zerbait delako; kaleak dira eskolak, eta, beraz, ikasteko presente egon behar du hor. Datozen egunetan fijatu zaitez zein emakumek daraman H-a paparrean. **N.B.**

ri Euskal Herri osora zabaltzeko proposamena egin zioten lantaldeari», azaldu digu Jon Kobeaga, Euskaraldiko antolakuntzako kideak. «Euskaraldia beti izan da moldagarria, herri bakoitzean dauden hizkuntza beharretara egokitzea da gure proposamena. Horri helduta, Euskaraldia Hika sustapena egiteko zein herrik zuten interesa galdetu genuen. Zirhikarekin elkarlanean osatu da proposamena hala nahi zuten herrietan, eta Euskaraldiak proposamen hori zabaltzen lagundu du», gehitu du.

**HITANOA GEHIAGO ERABILTZEA, BAINA BAITA ERE IKASTEA DU HELBURU EKIMEN HONEK. IKASTEKO TRESNA BAT ERE BADAGO MARTXAN, «APPA HI!» DOAKO APLIKAZIOA.**

Hikagin inkestaren emaitzen arabera, hitanoaren egoera orokorra ez dela ona ondorioztatu zuten. Izan ere, inkesta bete zutenen gehiengoak (%55) egoera eskasa edo oso txarra dela zioen, eta nokarena tokarena baino okerragoa. %11k esan zuen egoera ona dela eta %33ak erdipurdikoa. Fokua udalerrri euskaldunetan jarritz gero, hitanoaren egoeraren pertzepzioa hobea da; %64ak uste du ona edo erdipurdikoa dela.

Horregatik uste du ZirHikak euskararen erregistro in-

formalak bultzada bat behar duela. Hala, aurten Euskaraldian parte hartzeaz gain, Euskal Herriko Hika Topaketaren bigarren edizioa ospatuko dute Markina-Xemeinen, azaroan. Bi urtetik behin antolatzea aurreikusten dute, eta lehenengoa Gipuzkoan izan zenez, oraingoan Bizkaira salto egitea erabaki dute.

Era berean, Hikadromoren bigarren edizioa ere egingo dute Durangoko Azokan. 2024ko abenduaren 7an egin zuten lehena Gerediaga elkartearen babesarekin, eta dinamika izan zuen arrakastaren ostean –75 pertsonak hartu zuten parte, Euskal Herriko lurralde guztietakoak–, aurten ere egingo dute, lortu zen giro apartarekin animatuta.

Horrez gain, ZirHikak hitanoa sustatzeko bestelako proposamenak badituzte, aurrera begira martxan jartzeko asmotan. Hasteko, udalekuekin txertatzea gustatuko litzaieke, batez ere Bertsozale Elkartek eta EMAk antolatzen dituen Salto! izena dutenetan. Gainera, gida bat sortu nahi dute, hitanoa erabiltzea sustatzeaz aparte, hura ikasteko pautak eman nahian.

Norberak etxean praktikatua ahal izateko, ZirHika taldeak ‘Appa hi!’ aplikazioa jarri zuen martxan. Horri esker, jolas baten bidez, hitanoa ikasten joan gaitezke, eta mailetan aurrera egin. Hitano hiztunak gehitzera eta aktibatzea bideratutako lanak dira guztiak.



# Herriz herri, txoko guztietatik ilusioa pizten doan ahobizien eta belarripresten Gune Ibiltaria



Euskaraldia hasten denerako, Euskal Herriko bazter askotara bisita egina izango du Gune Ibiltariak, ariketa kolektiboari buruzko informazioa zabaltzeaz arduratzen dena. Horrez gain, Ahobizi eta Belarriprest txapak ere banatzen dira bertan, parte hartzeko izena emateko aukera dago eta merchadisinga ere saltzen dute.



Gune Ibiltariaren geldialdi bat. Karparen inguruan



## N.B. | IRUÑEA

Euskaraldia herriz herri ospatuko da, eta herri bakoitzaren baitan elkarte desberdinek euskal hiztunak dinamizatuko dituzte. Baina horrez gain, jendea gehiago animatzeko asmoz, Euskaraldiaren Gune Ibiltaria ere martxan dago. Hala, apirilean hasi zuen bira Artikan, eta egunez egun Euskal Herria zeharkatzen ibili ostean, maiatzaren 18an Guadiana amaituko du ibilbidea.

Aste honetan du, beraz, azken txanpa. Bilbo, Legutio, Zizur Nagusia eta Asparrena, azken egunean Arabako Errioxarantz joateko.

Euskaraldiaren hirugarren edizioan jarri zen martxan Gune Ibiltaria, Euskal Herriko herri eta auzoak bisitatzen dituen furgoneta. «Gune Ibiltaria sortu zen herriek eskatu zигutelako. Guk ez genuen

**EUSKARALDIA ZER DEN AZALTZEN DUTEN EUSKARRIAK DAUDE KARPAN -ESKUORRIAK, IKUSENTZUNEZKO AK...- JENDEAK ARGIA GOIZAN DEZAN ZEIN DEN BERE ROLA, AHOBIZI EDO BELARRIPREST.**

irudikatu halakorik egitea, eta pasa den edizioan batzordeetatik eta herrietatik esan ziguten horrelako zerbait egitea ondo legokeela. Haiei erantzutearren jarri genuen martxan», azaldu digu Sonia Perez Anguerak, Taupa Mugimenduko eta Euskaraldiko antolakuntzako kideak.

Furgonetarekin batera, karpa bat jartzen dute kamisetak, poltsak, banderak eta bestelako merchadisinga saltzeko, baina helburu nagusia ez da saltzea, dibulgazioa baizik, batez ere euskara hain zabaldia ez dagoen lekuetan.

«Leku batzuetan batzordeak daude eta horietan modu batera edo bestera, informazioa iristen da. Badaude beste leku batzuk non zailagoa den batzorde bat sortzea eta jendea aktibo izatea, eta horra Euskaraldia eramateko modu bat da Gune Ibiltaria. Batzor-



Zure etxebizitza ondo isolatzen baduzu, urte osoan zehar tenperatura egokia izango duzu

► %50 Aurrezkia ► Obrarik gabe ► Egun batean ► Isolamendu termikoa eta akustikoa

## Isolatu zure etxea AISLANAT-ekin

Aislanat, Nafarroan ekoiztutako zelulosazko isolatzaile bakarra. Isolatu zure etxea zelulosaz, egun bakarrean, obrarik gabe, kostu txikiarekin eta guztiz ekologikoa den produktu batekin.



Pol. Morea Norte. c/B n° 27 - BERRIAIN  
948 33 00 15 - 627 41 22 69  
www.aislantesaislanat.es

**AISLANAT**  
AISLANTE DE CELULOSA



egitaraua osatzen dute herrietako batzordeek. EUSKARALDIA

deak dituzten herrietan ere, ikusgarritasuna emateko baliabide bat da», dio Perezek.

Euskaraldia zer den azaltzen duten euskarriak daude karpan –eskuorriak, ikusentzunezkoak...– jendeak argiago izan dezan zein den bere rola, ahobizi edo belarriprest, eta informazioa banatzen dute egingo den ariketari buruz.

Horrez gain, aitzakiarekin, aprobetxatzen dute izen-emate txokoa edo txapak jasotzekoa jartzeko, baina Euskaraldia zertaz doan enteratu ez diren batzuk uste dute txapa horiek haurrentzako opari eraman ditzaketela, eta azalpenak eman behar dizkiete.

Izan ere, Euskaraldiaren laugarren edizioa den arren

oraindik badaude herritar asko zer den ez dakitenak, eta guneak balio du «uler dezaten hau ez dela festa bat, gizartearen egiten den ariketa bat baizik, erronka bat. Baina erronka bat izateak ez du esan nahi ondo pasako ez dugunik; mendira igotzea ere erronka bat da eta disfrutatzen da».

**Babes gehiago behar duenari**

Euskaraldian izena eman duten herriei Gune Ibiltaria eramateko aukera ematen zaie, eta beraiek eskatzen dute joatea nahi izanez gero. Gero, jasotako eskaera guztiak aztertzen dituzte, eta Euskal Herri osora iristen saiatuz, Gune Ibiltariarekin batera egingo dutena ere kontutan hartzen dute. Horrez gain, gabezia gehien dituzten herriak lehenesten dituzte. Adibidez, Tuteran edo Vianan, Euskara Batzorderik ez baina Euskaraldian izena eman duten pertsona batzuk badaude, eta hara joango dira babesa ematera «bai ala bai».

«Bi hilabete eta erdian herririk herri doan koordinatzaile bat dago, eta toki batera iristen denean han lantaldetxo bat egon behar du, eta horrek kudeatzen du Gunea. Herri bakoitzean aurpegi ezagun eta erreferenteak egotea komeni da jendea hurbiltzeko», azaldu digu Taupako kideak. Hala ere, ikusten badute herri batean oso jende gutxi dagoela Euskaraldiaren alde lanean, ez dute inolako arazorik euren lantal-

**FURGONETAREKIN  
BATERA, KARPA  
BAT JARTZEN DUTE  
KAMISETAK,  
POLTSAK,  
BANDERAK ETA  
BESTELAKO  
MERCHANDISINGA  
SALTZEKO, BAINA  
HELBURU  
NAGUSIA EZ DA  
SALTZEA,  
DIBULGAZIOA  
BAIZIK, BATEZ ERE  
EUSKARA HAIN  
ZABALDUA EZ  
DAGOEN  
LEKUETAN.**

deko kideak bertaratu eta laguntzeko.

Anekdotak gisa, duela egun batzuk Mutiloan izan behar zuten. Eguna eta ordua iritsi zenean, euskara batzordea Euskaraldira deika ibili zen, Gune Ibiltaria non ote zegoen galdezka, eta Mutiloan zegoela baieztatu zuen... baina ez Mutiloa berean! «Koordinatzailea Gipuzkoako Mutiloan zegoen, eta Nafarroako mutiloan zuen batzordea zain. Hau ez da gertatzen zaigun lehen aldia, uste dugun baino herri gehiago baitaude berdin deitzen direnak. Horrelakoak gertatzen direnean, ordutegia aldatu eta bertara joaten da», aipatu du Perezek.

Kontatu digun beste pasadizo bat pasa den edizioan gertatu zen. «Herri batean batzordeak maskota moduko batzuk prestatu zituen, Ahobizi eta Belarriprest, bata gorria eta bestea horia, eta gerturatu zitzaigun gaztetxo bat galdetzea ea noiz aterako ziren berriro 'ketsup eta mostaza'». Gune Ibiltariak lan proposa egingo zuen, ziurraski, une horretan azalduz mutikoari nortzuk ziren maskotak eta zertarako balio duten, nahiz eta Euskaraldia helduentzako ariketa bat den. Aurten, ordea, txikiek ere parte hartu ahalko dute. Ikastetxeetan martxan jarritako ekimen bati esker, 16 urtetik beherakoek Xaxatzaileen papera hartu eta familietan euskara erabiltzera animatu ahal izango dute.





**ANA GOITIA ERKIAGA** Umoregilea eta aurkezlea

«Katana» bakarriketa da Ana Goitiak une onetan eskuartean duen proiekturik kutunena. Goitia (Lekeitio, 1981) umoregile eta aurkezlea izateaz gain, moda blogaria ere bada duela 18 urte. Jardun horretan gaztelaniaz idazten badu ere, hor ere lehen hitza euskaraz egiteko erronka hartu du, eta bere hiztegitik «erdarakadak» desagerraraztea.

# «Lehen hitza euskaraz izan dadila, eta gero, ez badakite, aldatuko dugu»

**Nagore BELASTEGI** | BILBO

Euskaraldiko hamaikakoa oso anitza da. Ana Goitia dugu umoristen ordezkaria.

## **Nola hartu zenuen enbaxadorea izateko eskaera?**

Oso pozik, egia esan niretzat ohore bat da nitaz pentsatu izana. Nik ere erronka pertsonal bezala hartu dut. Sareetan urte askotan erdaraz aritu naiz, duela 18 urte blog bat erdaraz zabaldu nuelako, eta hor jarraitzaile asko ditudalako Euskal Herritik kanpokoak, eta orain erronketako bat da lehen hitza behintzat euskaraz egitea. Eta nire normaltasunean erabiltzen ditudan erdarakadak gutxitzea.

## **Beraz, enbaxadore izatearena ez da soilik besteenganako, baizik eta baita ere erronka pertsonala. Joera horiek Euskaralditik kanpo mantentzea da zure xedea?**

Guztiz. Hasita nago jada hori egiten. Hamaikakoan nagoela jakin nuenetik horretan nabil. Erdarakadak, adibidez, asko esaten ditugu Lekeitio. Nire bakarriketan ere botatzen ditut. Batzuetan nahi gabe ateratzen dira, eta ahalegintzen naiz bakarriketan ere horiek aldatzen.

## **Lekeitiarra izanik, pentsatzen dut euskaraz biziko zarela.**

Bai, bai, noski. Nire familia osoa euskalduna da, lagunak



ANA GOITIA

ere euskaldunak dira. Euskaraz ez den beste hizkuntza batean ezin dugu hitz egin, ez zaigu irteten. Eta lanean ere euskaraz egiten ahalegintzen naiz. Bueno, ahalegindu ez, denak euskaldunak gare-lako. Zuzendari lanetan nabil, eta den-dena euskaraz hitz egiten dugu.

Baina beste gauza bat gertatzen zait hirietan, adibidez Bilbora joaten naizenean.

## **«UMOREA BETI EGON DA GIZONEZKOEI LOTUTA, ETA HORREN AURKA INDARRA EGITEKO SORTU NUEN 'KATANA'».**

Denda edo tabernetan lehen hitza erdaraz egiten dudala. «Me pones...», eta ez, horrek ez du hala izan behar. Ez badidazu ulertzen, orduan egingo dizut nik erdaraz. Uste dut denon erronka dela hori aldatzea, uste dudalako nahi gabe egiten dugula, eta oso garrantzitsua da. Behin gertatu zitzaidan ni lotsatzea. Denda batean erdaraz aritu os-tean, ordaintzean «eskerrik

asko etortzeagatik» esan zidan; ai ama! ni nire albokoari euskaraz ari nintzen, eta den-dariari erdaraz, eta bazekien euskaraz. Uste dut oso garrantzitsua dela lehen hitz hori euskaraz egitea, eta gero, ez badakite, aldatuko dugu. Horrela, beste aldean dagoenak ere agian euskaraz hitz egingo digu, batzuetan ez dutelako egiten ez dutelako ohiturarik.

## **Zuk umorea egiten duzu, berrez zaila dena, eta gainera emakumea eta euskalduna zara. Traba gehiagorik?**

Bakarriketak egiten hasi nintzenean pentsatzen nuen «nora noa ni?». Adina ere kontra dut, «zer grazia egingo dit niri?», emakumea izateagatik soilik esaten duten zerbait. Eta gainera estereotipo estetikotatik at nago ni. Denak ziren trabak! Eta hala ere pentsatu nuen egin behar nuela, oholtza gainean umorea egiten duten emakume euskaldunak behar ditugulako, oso gutxi daudelako eta aukera gutxiago ditugulako.

Umorea beti egon da gizonetzkoiei lotuta, eta horren aurka indarra egiteko, erakusteko emakumeok umorea gizon bezala edo hobeto egin dezakegula erakusteko, sortu nuen «Katana». Feed back oso ona izaten ari da, eta jendeak asko eskertzen du. Horrek harrotzen nau. Emakumeak identifikatuta sentitzen dira, eta hori polita da.

*Elkar mugituz egingo dugu*

**Zeu zara**  
**Laudio**  
Tú eres

**LAUDIO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

## LUTXO EGIA DEL RIO Idazlea

Bilboko Santutxu auzoan bizi izan da Lutxo Egia (Santander, 1969) txikitatik, eta bertan euskaldundu zen. 2015ean egin zuen «Transitoak» arte-ekintza Euskaraldirako inspirazio iturria izan zen.

## «Balia dezagun Euskaraldia arrakalak eta gogoeta konpartituak egiteko»



JAIZKI FONTANEDA | FOKU

N.B. | BILBO

Hilabete batean euskaraz soilik hitz egiteko hautua egin zuen Lutxo Egia idazleak 2015ean, besterik ulertuko ez balu bezala. Esperimentu hark arreta handia jaso zuen, baita Euskaltzaleen Topagunearena ere (egun Taupa mugimendua). Urtebete geroago Donostiako Egia auzoak haren ereduari jarraitu zion, eta erdua zabaldu behar zela pentsatu zuten. Lasarten sortu ziren Ahobizi eta Belarriprest terminoak, eta ondoren etorri zen lehen Euskaraldia.

### Nola bizi duzu zuk Euskaraldia?

Eguneroko hizkuntza praktikatik heltzen gara Euskaraldira. Nolabait, geure buruari galdetzen diogu: nola-koak dira praktika horiek, aritzen garen eremuan? Nik neuk: zer eskaintzen dit Bilbok eta nola jokatzeko dut normalki? Orduan, orain Euskaraldian, ikusi behar dut nola hobetu ahal

ditudan praktika horiek, norekin hobetu ahal ditudan. Adibidez, hamaika arrazoi tarteko, euskaraz nekez jarduten dutenekin.

Ahobizi gisa, jardun hori lehenetsi ohi dut Euskaraldian. Bilbo hiri nagusi erdalduna da, baina berrogei urtean 24.000 hiztun izatetik (Eustat 1981) 103.000 izatera (Bilboko Udala, 2021) igaro gara, eta horrek ere zerbait adierazi nahi digu. Hala, irakurketa negatiboak nola positiboak egin daitezke. Orduan, balia dezagun Euskaraldiak ematen digun ikusgarritasuna arrakala batzuk egiteko, baina, batez ere, gogoeta konpartituak egiteko.

### Nola ikusten duzu orain arteko bilakaera?

Lehenengo Euskaraldian helburuetako bat garbi ikusi genuen: norberaren hizkuntza ohiturei buruz gogoeta konpartitua egin praktika performatibo baten bidez, eta, hartara, ohartu zein den euskal hiztunon egoera, tokian toki nahi baduzu. Orduan, ez ote garen apur bat horretatik urrundu, ez ote den ideia hori apur bat lausotu, eta ez ote garen gehiago lerratu eguneroko ohiturak hobetzeraz.

### Zuk egin zenuen performanceak Euskaraldiaren sorreran eragina izan al zuen?

Euskaraldiak, nik dakidala, ez du harremanik nik eginiko performancearekin. Nik neuk arte-ekintza gisa planteatu nuen, eta Euskaraldia ariketa soziala da. Agian, hartan oinarrituta, Topaguneko lagunei otu zitzaizkien interesgarria izan zitekeela agendari eranstea halako jolas kolektibo bat. Topagunean mamituriko proiektua da erabat.

## «Hizkuntza lotuta dago herri batekin; bata bestea gabe ez da ezer»

## OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR Korrikalaria

2006az geroztik mendi korrikalarien Euskal Selektzioko kidea da Oihana Azkorbebeitia (Abadiño, 1981). Buruan ikurrina eramaten du beti, bere ile gorriarekin batera haren bereizgarri bilakatu dena.

N.B. | BILBO

Euskal Herriko mendi korrikalaririk onenetariko bat da Oihana Azkorbebeitia, eta Euskal Herriaren izena mundu osoan barrena eramatea lortu du, bere jardunari esker, nazioarteko hainbat txapelketetan emaitza onak lortu baititu. Mendien gora doanean, urrunean, bera datorrela jakitea erraza izaten da, haren motots gorria apaindurik ikurrinaren bufa jantzi ohi duelako buruan, inori ez ahazteko nondik datorren.

### Euskaraldiaren Hamaikakoaren parte izateak zer suposatzen du zuretzat?

Iruditzen zait edozein euskaldunentzat ohore txiki bat dela Euskal Herri mailan mezu hori zabaltzea. Hasieratik eman zidaten aukera enbaxadore izateko, baina ez bakarrik egun horietan, ondoren ere bai. Ahalegindu behar dugu egunerokotasunean ariketa hori egiten. Pozik nago aukera eman didatelako eta funtzio hori egin dezakedalako.

### Pertsonalki zerbait berezia egiteko asmorik ba al duzu Euskaraldiko egun horietan?

Niretzat ez da izango ahalegin handi bat. Niretzat normala da. Egingo dut egunerokotasunean egiten dudana berdina, zeren ni gaur egun euskaraz bizi naiz, eta ahalegintzen naiz beti, lanean edo denda batera joaten banaiz, nire lehen hitza euskaraz egiten. Beraz, Euskaraldiak iraungo duen egun horietan berdin arituko naiz. Normalean saiatzen naiz euskaraz hitz egiten edo ulertzen ez dutenei ere euskara garbi batetan hitz egiten. Orduan, egun horietan are gehiago. Esan beza-



EUSKARALDIA

la, ez da esfortzu handi bat izango niretzat, eguneroko bizimoduarekin jarraitzea izango da.

### Euskararen enbaxadore zara orain, baina esan dezakegu Euskal Herriaren enbaxadore bazarela nolabait, lasterketetan inoiz ez baituzu ikurri- na ahazten.

Kar, kar, kar. Euskal Herri eta Estatu mailan, eta atzerrira begira lehiatzen hasi nintzenean, beti pentsatu izan dut nire ardura badela erakustea euskaldunak euskaldunak garela, eta espainiarrak espainiarrak direla. Ikurri- na hori hasieratik erabili izan dudana ikurra izan da, eta egia da horrek markatzen duela, nazioartean gu sekula ez garelako izan espainolak. Italian, adibidez, baschi ginen. Hizkuntza lotuta dago nortasun batekin eta herri batekin, eta uste dut mezuak hori izan behar duela, euskara bai, baina Euskal Herria ere hor dagoela eta bata bestea gabe ez dela ezer.



# Saltokietako erakusleihoetara ere iritsiko da Euskaraldia

Badator Euskaraldia, eta aurten denda eta tabernetako erakusleihoetara ere iritsiko da. Oartzualdeko Euskara Batzordeak bi ekimen antolatu ditu, erakusleihoak protagonista izango dituztenak: Euskaraldiko euskaparate lehiaketa eta Euskararen paparazziak.

## ERREPORTAJEA

J.S. | ERRETERIA

**E**rreterriako, Lezoko, Oartzungo eta Pasaiaiko udalek merkataritza, ostalaritza eta gainerako saltokietako erakusleihoak nahiz saltokiak apaintzeko Euskaparate lehiaketa antolatu dute hirugarren aldiz, Oartzualdeko Euskara Batzordearen bitartez, Euskaraldiaren helburuekin bat eginez.

Antolatzaileen esanetan, Euskaraldiari lotuta egoteaz gain, Oartzualdeko lau udalek merkataritza eta ostalaritza euskararen erabilera sustatzeko urteko 365 egunetan gauzatzaren duten "Prezio berean, euskaraz!" egitasmoarekin ere bat egiten du ekimenak.

Horrela, lau udalek dei egin diete eskualdeko merkataritza ostalari eta bestelako establezimendu guztien jabeek Euskaraldiaren testuinguruan gauzatzeko den lehiaketan parte hartzea. «Establezimenduak apaintzeak gure kaleak pixka bat alaitzeaz gain, Euskaraldia bezalako ekimen positibo bati bultzada eta ikusgarritasuna emango dizkio», azaldu dute.

Nahi duten Oartzualdeko merkataritza, ostalaritza eta gainerako saltoki guztiek parte hartu ahal izango dute euskaparate lehiaketan. 'Euskaraldia' hitzak nahitaez egon beharko du bistan apaintzen den saltoki edo erakusleihoan, baina hortik aurrera norberaren sormenaren eta irudimenaren arabera geratuko da.

Euskaraldia edo euskara aitakia edo gai hartuta apaindu beharko dute saltokiaren erakusleiho bat gutxienik. Erakusleihorik ez izan arren, establezimendua bera edo haren alde nahiz zatiren bat apainduz parte hartu nahi dutenek ere egin ahal izango dute.



Euskaraldiari aipamena egiten dion euskaparatea, Erreterriako saltoki batean. J.S.

Lehiaketan parte hartu nahi duten establezimenduek [www.oarsoarrak.eus](http://www.oarsoarrak.eus) webgunean aurkituko duten formularioa bete beharko dute, eta erakusleihoak edo saltokiak apainduta eduki beharko dituzte maiatzaren 9tik 25era behintzat. Epaimahaikideek hilaren 9tik 16ra bitartean ikuskatuko dituzte erakusleihoak, eta ikusi ahal, haien balorazioak biltzen joango dira.

Epaimahaiak maiatzaren 19rako ezagutaraziko ditu eskualdeko irabazlea eta herri bakoitzeko nor diren. 400 euroko balioa duen deskontu bonu sorta bat eskuratuko du irabazleak bere bezeroen ar-

tean banatzeko, eta herri bakoitzeko irabazleak 200 eurokoa jasoko du.

### EUSKARAREN PAPARAZZIAK

Bestalde, Euskararen Paparazziak argazki lehiaketaren zazpigarren edizioa antolatu du Oartzualdeko Euskara Batzordeak, argazkigintza merkataritzarekin eta ostalaritzarekin lotzen duen lehiaketa. Aurten go edizioa eskualdeko Euskaraldiko ekintza izango da.

"Prezio berean, euskaraz!" egitasmoaren barnean antolaturiko argazki lehiaketa da Euskararen Paparazziak. Erreterriako, Lezoko, Oartzungo eta Pasaiaiko merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan euskararen erabilera handitzeko, hizkuntza paisaiak duen garrantzia azpimarratzea du helburu.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek Oartzualdeko saltokietan ikusgai eta euskaraz dauden errotuluei, karteiei edo bestelako idatziei argazkiak atera, eta e-posta bidez ([euskararenpaparazziak@gmail.com](mailto:euskararenpaparazziak@gmail.com)) edo WhatsApp bidez bidali beharko dituzte 747 449 416 zenbakira.

Argazkiak maiatzaren 10etik 28ra bitartean bidali beharko dira. Lehiaketaren lau irabazleek ekainaren 9tik 30era bitartean Oartzualdeko saltokietan gastatzeko 150 euroko saria irabaziko dute. Ekainaren 4an ezagutzera emango dira irabazleen izenak.



## Zintzarri Taberna

Ezkiaga ibilbidea. Hernani

**GUSTATUKO AL LITZAIZUKE ZURE ASEGURUEN BALDINTZAK AZTERTZEA?**

DONOSTIA: 943 47 47 19   BILBO: 944 23 96 34   email: [bikabi@bikabi.eus](mailto:bikabi@bikabi.eus)



**BIKABI**  
ARTEKARITZA S.L.  
CORREDURIA DE SEGUROS



## Txerrikien banatzaile eta ekoizlea

· Odolkiak · Txistorrak · Saltxitxak · Txorizoak · Solomoak · Txerri burua · Tripakiak

DENAK Poligonoa 307 moduloa · Tf.: 943 59 29 23 · [www.ormaki.net](http://www.ormaki.net) · ANDOAIN



# «Gure bihotzaren taupadak», erritmo dantzagarriak euskaraz

Bulego taldearen ardura izan da Euskaraldiaren 4. edizioari soinu banda jartzea. Nazioartean diharduen baina euskara hutsean konposatzen duen taldea izanik, primeran erakutsi dute bide arrakastatsu bat egitea posible dela eta euskaldun izateak atek zabaltzeko aukera eman dezakeela.

**N.B. | DONOSTIA**

Bulego talde azkoitiarrak egin du Euskaraldiaren laugarren edizioako kantua, «Gure bihotzaren taupadak», aurkezpenean «edonork entzuteko moduko abesti herrikoia» bezala aurkeztu zutena. Argi dagoena da dantzagarria eta itsaskorra dela, arrakasta izateko osagai

apartak dituela. Izan ere, Bulegoren ibilbidea ere arrakastatsua da, euskara hutsean aritu arren... edo horregatik hain justu. «Uste guztien kontra ikusi dugu gure hizkuntza dela atzerrira joaten garenean beste talde batzuen aurrean bereizten gaituen ezaugarri garrantzitsuenetako bat, eta horrek atek irekitzen dizki-

gu», aipatu zuen Tomas Lizarazu taldeko abeslariak.

Lizarazuren hitzetan, pixkanaka euskara Bulegoren nortasunean errotzen joan da eta, ondorioz, Euskaraldiko kideak taldearekin harremanetan jarri zirenean ez zutela «bi aldiz pentsatu beharrik izan baiezkoa emateko», esan zuen. «Euskaraldiarekin bat

eginez eta abestia sortuz, guri hainbeste eman digun hizkuntza bati bueltan zer bait ematera gindoazela sentitzen genuen». Jendartean izan dezaketen eragina euskararen alde baliatzea euren ardura ere badela aipatu zuten.

Abestiaren sorrera, ordea, ez da hain erraza izan, denontzako kantu bat egin nahi zu-

telako, Euskaraldiaren izaera askotarikoa kontuan harturik. Abesti hau izan da Bulegoren ekarpena, baina uste dute denok jarri dezakegula gure aletxoa. «Pauso txikiak emanez aldaketa handiak sortu ditza-kegu gure inguruan. Ez dauka- gu aldaketa handiak kanpotik etortzeko zain egon beharrik», adierazi zuen Lizarazuk.



Durangoko azokan eginiko aurkezpena. Jaizki FONTANEDA | FOKU



**Etorkizun multiteknologiko eta jasangarriko prest**



FOR A  
BETTER  
LIFE



2018

Lehen edizioako Biziprest eguna, Bilbon.

Aritz LOIOLA | FOKU



2020

Pandemiak guztiz baldintzatutako bigarren edizioako irudia, Bilbon.

Marisol RAMIREZ | FOKU



2022

Festa giroa, Gernikan, 2022ko edizioaren atarian.

Aritz LOIOLA | FOKU



2022

Mintzodromoa eta txapa banaketa, Donostian.

JonURBE | FOKU



2022

Athletic eta Errealeko jokalaria, pankartaren atzean elkarturik.

Aritz LOIOLA | FOKU

– 1925etik –

# iztueta

naturarekin orekan

## Etorri baserriko denda ezagutzera eta ezagutu gure produktu berriak

Burger Premium

Muu...ka gazta biguna

Irabiatuak

Proteikoak

Iztueta baserria | Lazkaomendi 20210 Lazkao, Gipuzkoa

iztueta@iztueta.eus

@iztueta.esnekiak